

Liburuak

KRITIKA

Aulki-jokoa.
Uxue Alberdi.
Elkar. 124 orrialde. 12,75 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez



Betiereko joko bat

HAURTZAROKO JOLASEN ARTEAN, gutako askok gogoratu-ko dugu aulki-jokoa deritzana. Garaiko inozentzia kontutan izanik, nork esango luke joko soil batek baino askoz ere kutsu transzendenteagoa eduki zezakeenik?

Joko soil honetan jostatu ez denak ez du zertaz kezkatu beharrik, izan ere, mundu honetan jaio izate hutsak bilakatzen gaitu aulki-jokoaren parte-hartzaile. Bizitzaren metafora gisa aurkezten zaigu Uxue Alberdiren lehenengo eleberri honetan, bizitza eta heriotzaren mugan kokatzen gaituen joko baten antzera; bizitzaren eguneroko gauza minimoen erritmora dantzatzeko indarra edukitzeak aulki bat ziurtatzen digu, gauzak aldatzeko indarra mantenduz. Hala ere, joko guztietan bezala, norbaitek galdu beharra du eta idazleak esan bezala, “egutegiko azken orria bere lekutik erauzteko indarra galtzen duenean hilko da andrea”.

Kantoieta izeneko herri arrantzaleko pertsonaiak izango ditugu aulki-joko honen parte-hartzaile nagusiak: hiru emakume –Eulali, Teresa, Martiña–, hiru ahots eta hiru bizipen desberdin joko beraren barruan. Francoren garaian bizitzea tokatu zaien emazteen haurtzaroko bizipen pertsonalek –ametsak, traumak...– gidatzen dute eleberriaren ildoak, eta konturatu gabe, zaharturik herriko gozotegian, eguneroko kafea hartzera mugatzen den erritualean ikusten ditugu, nor bere aulkiarekin, nagusiaren irratia soinuaren erritmoan dantzatzen. Baina irratia ere itzaliz joango da, haurtzaroa kontatzen den heinean eta orduko gertakizunak, *in crescendo* doazen heinean, zahartzaroko bizitza *decrecendo* batean sumatuko dugu.


Oinarrian, esan daiteke, badela kontatzeko behar bat, kontatzen dugun bitartean bizirik irauten dugulako, eta haurtzaroko zein gaztaroko kontuak berreskuratuz, mundua aldatzeko gaitasuna mantentzen dugu.

Belaunaldi baten amaiera dakarren aulki-jokoa da –Kantoietakoz zilbor marroixka duen belaunaldia– gazteagoei lekua uzten diena –zilbor txurixka duen belaunaldia– eta mundua aldatzeko lekukoa hartuko dutenei bidea zabaltzen diena. Baina, zorionez ala zoritxarrez, garaiak ez dira errepikakorrak eta belaunaldi batekin beste bat dator. Azkenik, geratzen zaigun gauza bakarra guztiontzat berdina izango da: aulki-jokoa. ■

Lehergailu atomikoaren sortzaileari buruz

Alain Ulaziak eta Alfontso Martinez Lizarduikoak osatu dute *Oppenheimer eta Manhattan proiektua* liburua. Lanaren helburua, Robert Oppenheimer-en soslaia eskaintzeaz gain, aurreneko lehergailu atomikoaren sorruntza azaltzea da. Baita, noski, mota horretako lehergailuak Japoniako Hiroshima eta Nagasaki

hirietan botatzeko tes-tuingurua azaltzea ere. New Yorken jaiotako zientzialariak denetik eza-gutu zuen bizi izan zen bitartean: Washingtonen lehen mailako pertsonaia izan zen, baina II. Mundu Gerraren ondoren baztertu egin zuten. Egileek liburuan diotenez, pertsonaia anbigua da Oppenheimer: lehen mailako zientzialaria, baina zalantza etikoak sortzen dituen gizona. ■



Oppenheimer eta Manhattan proiektua.
Batzuen artean.
Gaiak.
143 orrialde.
18 euro.

Janaria merke prestatzen ikasteko

Ekonomi krisia denon buruetan egoteaz gain, guztion sabeletara ere iritsiko zen neurriren batean edo bestean: gehiago begiratzeko diogu saskiratzen dugun produktuaren prezioari. Baina horrek ez du esan nahi gaizki elikatu behar dugunik. Hori erakutsi nahi du Patxi Trula sukaldariak *Cómo ahorrar cocinando* (Nola aurreztu janaria prestatzen) liburuarekin. Karlos Argiñanoren hitzaurre eta guzti publikatu den liburu honen helburuak, honakoak dira: hilabete amaierara poltsikoak urratu gabe iristea; jaki osasungarriak prestatzea; eta sukaldearekin gozatzea, jendea bazkaltzera gonbidatzea, bidean hil gabe –egilearen hitzak dira–. Plater errazak,

betikoak, umeentzakoak... merke eta on. ■



Cómo ahorrar cocinando.
Patxi Trula.
Bainet.
190 orrialde.
19,95 euro.